



Beasaingo Udala

BEASAINGO UDALA ETA IGARLOI ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA BEASAINGO AUZOAK BIZIRIK MANTENTZEKO ETA IGARTZA AUZOKO JAIK ANTOLATZEKO

Beasainen, 2025eko uztailean

BILDURIK

Alde batetik, **Leire Artola Ugalde** andrea BEASAINGO UDALAREN (IFK, P2002100B), ordezkari gisa, Alkatea den heinean, Korporazio osatzeko bileran 2023-06-17an kargu hori betetzeko izendatua izan zelako. Egintza honetarako ahalmena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21,1b) artikulua ematen dio.

Beste aldetik, IGARLOI ELKARTEA, G75072843 IFK zenbakiduna eta egoitza Beasainen duena, Igartza Oleta 12, helbidean, egintza honetan JUAN ZUBELDIA ARRICARTE jaunak ordezkaturik, adinez nagusia dena, [REDACTED] NAN zenbakiduna, helburu hauetarako helbidea Beasainen duena, Igartza Oleta 12, eta ordezkartza 2023ko otsailaren 9ko datako Batzar Orokorrean bileran burututako ahalmenen eskuordetzearen arabera jarduten duena.

AURREKARIAK

I.- Udalaren eskumen propioen artean ondorengoa dago:

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (TAOAL) 25.m) artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz, udalerriak, bere eskumen gisa, besteak beste, ondorengoa du: "*kultura eta kultura-ekipamenduak sustatzea*".
- Era berean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17,1 artikulua udalerriek beren eskumen gisa izan ditzaketen eskumenak zerrendatzen ditu, eta horien artean, 20) "*kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea*" baita 19) "*kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea*".

II.- IGARLOI ELKARTEAREN Estatutuen 2. artikulua arabera, elkartearen helburuak honako hauek dira: Ama Birjinaren eguna dela eta irailean ospatzen diren Igartza auzoko jaiak antolatzea.

III.- Bi aldeek hitzarmena burutzeko interesa dute, Igartza auzoko festak antolatu eta aurrera eraman ahal izateko.



Beasaingo Udala

IV.- Hori dela eta, IGARLOI ELKARTEAK memoria bat aurkeztu du proposatzen dituzten jarduerarekin batera eta horien inguruko aurrekontuarekin.

V.- Uka ezina diruz lagundu nahi dena, udalaren eskumen eremuaren alorrean dagoela, eskumenaren eta gastuaren arteko lotura hertsia dagoela eta helburu publiko bat sustatzearekin bat datorrela.

Arrazoi horregatik eta kontuan izanda Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 2. artikulua aurreikusten dituen xehetasunak betetzen direla, 2025. urteko udal aurrekontuan 0240.481.330.00.14 partida izenduna kontsignatu da, 5.400,00 €koa honako proiektu hauek diruz laguntzeko:

- ✓ Jaietako egitarauaren inguruko hainbat ekintza aurrera ateratzeko, besteak beste:
 - Egitarauaren inpresioa
 - Pailazoak
 - Kontzertua (taldearen katxeta eta soinu-ztapen/argiztapena)
 - Sariak
 - Umeen jolasetarako materiala
 - Azpiegitura eta bestelakoak
 - Elkartearen gizarte garapena (asegurua,...)

VI.- Horren ondorioz, bi alderdiek elkarri kontratatzeko eta betebeharrak hartzeko gaitasuna aitortu diote eta hitzarmen hau honako klausula hauen arabera idaztea adostu dute:

ESTIPULAZIOAK

Lehenik. Helburua: Hitzarmen honen xedea esku hartzen duten alderdien eskubideak eta betebeharrak arautzea da, kultur sustapenean auzoko jaietan laguntzea helburuarekin, IGARLOI Elkarteari **5.400,00 €**ko dirulaguntza emanez.

Bigarren. IGARLOI Elkartearen betebeharrak:

1.- Diruz lagundutako jarduerak burutzea, hain zuzen ere:

- ✓ Jaietako egitarauaren inguruko hainbat ekintza aurrera ateratzeko, besteak beste:
 - Egitarauaren inpresioa
 - Pailazoak
 - Kontzertua (taldearen katxeta eta soinu-ztapen/argiztapena)
 - Sariak
 - Umeen jolasetarako materiala



Beasaingo Udala

- Azpiegitura eta bestelakoak
- Elkartearen gizarte garapena (asegurua,...)

2.- 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, diru laguntzen Lege Orokorrak, 13. artikuluan xedatutako onuradun izateko debekuetan adierazitako egoeretan ez egotea, une honetan eta hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, eta Udalarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.

3.- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

4.- Udal organo eskudunak edo udal kontuhartzaitzak burututako egiaztapen eta kontrol jarduketak onartzea, organo hauek, emandako zenbatekoen erabileraren fiskalizazio eta kontrolerako eginkizunak baliatuta, eska diezaioketen informazio guztia emateko betebeharra izanda, 38/2003 Legean xedatutakoaren arabera.

5.- Udalari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko jasotako bestelako diru laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak. Jakinarazpen hori laguntzak ezagutu bezain laster burutu beharko da eta, edonola ere, jasotako funtsei emandako erabileraren justifikazioaren aurretik.

6.- Jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, kontrol eta egiaztapen jarduketan helburu izan daitezkeen heinean.

7.- Diruz lagundutako jardueren finantzaketaren izaera publikoa behar bezala adierazi eta hedatzea, onuradunak aldeztatik eskatuta Beasaingo Udalak helarazitako anagrama eta logotipoak karteletan, oroipen plaketan, inprimatutako materialetan, bitarteko elektroniko eta ikus-entzunezkoetan eta komunikabideetako aipamenetan erabilita.

8.- Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen (23., 25., 26. 27. artikulua), apirilaren 7ko 2/2016 Legearen eta azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren (2. atala), arabera, Jarduera guztietan bermatuko da euskararen erabilera, hau da:

Jarduerak euskaraz edo ele bitan egingo dira. Mezu idatziak (kartelak, esku-orriak, gonbidapenak, deialdiak, publizitatea...) eta ahozko komunikazioak (aurkezleak, hizlariak, musika...) gutxienez euskaraz egingo dira, eta, ele bitan eginez gero, euskarari lehentasuna emanda.

Dirulaguntzaren onuradunak hizkuntzaren tratamendua aurreikusi egingo du hirugarrenekin zerbitzuak kontratatzerakoan edo honakoak egiterakoan: bilerak, hitzaldiak, jendaurreko ekitaldiak, idatzizko komunikazioa (informazio-orriak, kartelak, gutunak, oharra...), megafonia, web-orria, WhatsApp-taldea...



Beasaingo Udala

9.- 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

10.- Diru laguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funts publikoak itzultzea.

11.- Eginkizunen garapenean eragin litezkeen kalte eta guztiak estaltzeko moduko erantzukizun zibileko poliza bat izenpetzea.

Hirugarren. Beasaingo Udalaren betebeharrak:

Beasaingo lgartza auzoko festak aurrera eramaten laguntzeko, Beasaingo Udalak dirulaguntza nominatibo gisa, 5.400,00 € ordainduko dio, jarraian adierazitako moduan:

- 1. ordainketa 4.400 eurokoa, hitzarmena sinatu ondoren, ordainketa aurreratu gisa, betiere egiaztatu bada onuradunak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22 artikuluan eskatzen den egiaztapena, dagokion Ogasunarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen inguruan, edozein ordainketa egin aurretik, azken agiriekin indarra galtzen badu Udalak egiaztatuko du datuen bitartekaritzarako plataformetan edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuetan kontsulta eginez.

Hala ere, onuradunak berariaz egin ahal izango dio aurka egiaztapen horri; kasu horretan, izaera hori egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu bere kabuz.

- 2. ordainketa 1.000 eurokoa, zuriak egoki aurkeztu dutenean, betiere egiaztatu bada onuradunak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Zuriketa dokumentu hauek modu egokian aurkeztutakoan:

- Memoria. Bertan, besteak beste, azaldu behar da egindako jardueren laburpena aipatuz jarduerak noiz burutu diren, partehartzaileen kopurua zenbatekoa izan den eta ekintza bakoitzaren balorazioa. Baita ere adieraziko da diruz lagundutako jardueren finantzaketaren izaera publikoa nola jakinarazi den (garatutako jardueraren esparruan sortutako publizitatea, iragarkiak eta dokumentazio grafiko eta idatziaren ale bat)



Beasaingo Udala

- Hitzarmena sinatzeko garaian aurreikusi diren jarduerak egin direla egiaztatuko duen dokumentu edo ziurtagiria, hitzarmenaren sinatzaileak sinatuta.
- Jardueren gastuaren justifikazioa (bi modu aurkezteko):
 - Izandako gastu guztien zerrenda eta horien faktura legalak.
 - Faktura* edo dokumentuen kopien zerrenda diruzainak sinatua. Zerrenda datu hauez osatuta egon behar du: fakturaren onuradunaren izena, fakturaren zenbakia, kontzeptua, zenbatekoa, fakturaren data eta faktura ordaindu zen data.

Udalak zuriketa egiteko garaian emandako dirulaguntzaren %30 osatzen duten fakturak eskatuko ditu.

- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarrera edo dirulaguntza guztien erantzukizunpeko adierazpena, elkartearen diruzainak sinatutakoa, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita. Baita jarduera horrekin lotutako beste sarrerarik ez dela egon, eta bestelako sarrerarik jasoko balute, horren berri izan bezain pronto Udalari jakinaraziko lioketela.
- Euskara eta berdintasun klausulak bete direnaren ziurtagiria, hitzarmenaren sinatzaileak sinatuta.
- Adostutako ekintzak eta jarduerak aurrera eramateko gainfinantziazorik ez dela egon ziurtatzen duen agiria, hitzarmenaren sinatzaileak sinatuta.

*Diruz lagundutako jardueretan kantitate txikiko gastuetan faktura osoak aurkezteko zailtasunak daudenean, faktura sinplifikatuak (aurreko tiketa) onartu daitezke hauekin batera elkartearen aitorpena aurkeztuz jarduerarekin loturiko gastuak direla eta beti ere Fakturatzeko betebeharra arautzen duen Erregelamendua, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuak jarraituz.

Diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legean kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak (15.000 € + BEZ) gaitzen dituenean, onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, obrarako, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, dituen ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan ez badago eskaintza horiek egin, eman edo hornitzen dituen behar adina erakunde, edo gastua dirulaguntzaren aurretik egin bada.



Beasaingo Udala

Aurkeztutako eskaintzen artean egindako aukeraketa, justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskaeran aurkeztu beharko dena, efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera egingo da, eta memoria batean berariaz justifikatu beharko da proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzen ez denean.

Laugarren. Diruz lagundu daitezkeen gastuak:

Diruz lagundu daitezke erabat beharrezkoak diren gastuak, jardueraren izaerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak eta diruz lagundutako jarduerak egikaritzeko aurreikusitako epearen amaiera baino lehen sortzen direnak.

Egikaritutako gastu gisa ulertuko da hitzarmen honetan ezarritako justifikazio epea amaitu aurretik modu eraginkorrean ordaindu dena.

Ez dira inolaz ere diruz laguntzeko moduko gastuak izango:

- a) Banku kontuetako interes zordunak.
- b) Interesak, errekaruak eta zigor administratibo edo penalak.
- c) Prozedura judizialetako gastuak.
- d) Zuzeneko zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke.
- e) Errentaren gaineko zergak.

Bosgarren. Gastuak justifikatzeko epea:

2026ko urtarrilaren 15erako izandako gastuen justifikazioa aurkeztu beharko da, hirugarren estipulazioan aipatutako moduan.

Seigarren. Beste laguntza batzuekin bateragarritasuna:

Diru laguntza hau bateragarria izango da helburu bera duten diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide guztiekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk emandakoak, edo Europar Batasunak edo nazioarteko erakundetakoak badira ere.

Zentzu horretan eta diru laguntzen Lege orokorraren 19.3 artikuluan xedatutakoa betez, jasotako diru laguntza guztien zenbatekoa ez da inolaz ere izango, bere horretan edo beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

Jarduerak finantzatzeko, diru laguntzaz gain, funts propioak edo beste diru laguntza edo baliabide batzuk erabili badira, justifikazioan diruz lagundutako jardueretarako erabilitako funts horien zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa zehaztu beharko dira.

Zazpigarren. Hitzarmenaren iraupena:

Hitzarmen honen indarraldia, 2025-12-31 artekoa izango da eta ezin izango da luzatu.

Zortzigarren. Jarraipen, zaintza eta kontrol mekanismoak:

Hitzarmenaren betearazpenaren eta sinatzaileek hartutako konpromisoen jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko, eta hitzarmena interpretatzean sor daitezkeen zalantzak argitzeko, batzorde bat sortuko da, kide hauek osatua:



Beasaingo Udala

- Udal-erakundearen aldetik, Herritarrak Batzordeko zinegotzi arduraduna, Euskara eta Kultura koordinatzailea hitzarmenari dagokionez.
- IGARLOI Elkartearen aldetik, Lehendakaria eta diruzaina, hitzarmenari dagokionez.

Bederatzigarren. Alderdien arteko jakinarazpenak eta komunikazioak:

Hitzarmen honen esparruan egiten diren jakinarazpenak eta komunikazioak honako pertsona hauei bidali beharko zaizkie:

- Udalaren aldetik: Amaia Gomez de Segura, Euskara eta Kultura koordinatzailea.
- IGARLOI Elkartearen aldetik: Juan Zubeldia Arricarte lehendakaria eta Ainhoa Garcia Campos, diruzaina.

Hamargarren. Onartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzearen ondorioak:

Sinatzaileetako batek onartutako betebeharrak eta konpromisoak beteko ez balitu, ez betetzea burutu duen alderdiari jakinarazpena helarazi beharko zaio, epe jakin baten barruan bete ez direla uste den betebeharrak eta konpromisoak bete ditzan. Ezarritako epea amaituta, ez betetzeak jarraituko balu, hitzarmena suntsiarazi egingo da.

Diru laguntzaren onuradunak onartutako betebeharrak eta konpromisoak beteko ez balitu, emandako zenbatekoaren zati proportzionala itzuli beharko du, gehi diru laguntza ordaindu zen momentutik dagozkion berandutze interesak.

Jasotako zenbatekoen erabateko itzulera edo itzulera partziala burutu beharko da hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzak edo udal kontuhartzailatza edo organo eskudunak ezarritako justifikazio betekizunak betetzen ez badira, bai eta diru laguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetan ere.

Hamaikagarren. Hitzarmena bertan behera geratzea:

- 1- Epea amaitutakoan.
- 2- Bi aldeek espresuki horrela adosten dutenean.
- 3- Alderdiek beren gain hartutako betebeharrak betetzen ez dituztenean.
- 4.- Hitzarmena baliogabetzat jotzen duen erabaki judiziala.

Hitzarmena suntsiarazteak azkendu egingo ditu alderdiek onartutako betebeharrak eta konpromisoak, eta baita prestazioen likidazioa ere. Helburu horietarako, aplikagarria izango da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 52. artikuluan xedatutakoa, suntsiaraztearen ondorioei eta likidazio eta kalte ordainen araubideari dagokienez.

Hitzarmenaren helburuak bete direla ulertuko da haren xedea burutu bada bi alderdientzat onargarriak diren baldintzetan.



Beasaingo Udala

Egikaritze prozesuan dagoen jarduketarik egongo balitz, alderdiek, jarraipen, zaintza eta kontrol batzordearen proposamenari jarraituta, abian dauden jarduketan jarraipena eta amaiera adostu ahalko dute, horiek amaitzeko epe luzaezina ezarrita.

Hamabigarren. Hitzarmenaren izaera eta jurisdikzio aplikagarria:

Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulua arabera, hitzarmen honen izaera juridikoa administratiboa da, eta, ondorioz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa da eskumena duena.

Hitzarmen honen aplikaziotik erator litezkeen interpretazio, aldaketa, suntsiarazte eta ondorioen inguruan ager litezkeen gatazkak alderdien arteko akordio bidez ebartziko dira eta, halakorik ezean, alderdi hauek administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoak izango dira.

Eta aurreko guztiarekin adostasun frogatzat, bildutakoek hitzarmen hau sinatu dute goiburuan adierazitako tokian eta egunean

BEASAINGO UDALA

Leire Artola Ugalde
Alkatea

IGARLOI ELKARTEA

Juan Zubeldia Arricarte
Lehendakaria

Sinatua : Mariola Pascual Paredes
Alkateak 2023-7-3an emandako
2023/1116 Ebazpenak baimenduta



Beasaingo Udala

AURREKONTUA
PRESUPUESTO

Gastuen Aurrekontua Presupuesto Gastos	8.330.- €
--	------------------

Gastu Kontzeptua	Kantitatea
Pailazoak	800 €
Graficas San Martin	650 €
Azpiegitura	500 €
Ume jolasen materiala + goxokiak + puzgarriak	650 €
Txapela + sariak	350 €
Kontzertua + teknikoa	5.200€
Asegurua eta bestelakoak	180 €

Sarreraren Aurrekontua Presupuesto Ingresos	8.330.- €
---	------------------

0.- €

Sarrera Kontzeptua Concepto de Ingreso	Kantitatea Cantidad
Beasaingo Udala_Kultura	5.400 €
Patrozinioa	400 €
Elkartea	2.530 €



Beasaingo Udala



EKS | CSV: ESKU184c15b7-bc8e-4c4e-8c0b-f84aa7d8a5ed

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01910>